

Arabar Errioxa izeneko plazera:

Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbidea, neurrizko dimentsioengatik eta sarbide praktikoengatik, goizetik gauera eta bertako naturaren, artearen, gastronomiaren eta bizikidetzaren, abegi ona eta ongiatorria bizitzeko modua direla dakiten jendearen artean zeharkatzeko gonbit egiten duen ibilbidea da. Baina gainera, turismoaren kontzeptu berria indartu nahi duen urteko sasoi guztietan zehar jardueraz beteriko ibilbidea da.

Ehunka mahastiek eta Erdi Aroko hiribildu harrigarriek bereizten dute Arabar Errioxa, eta horiek guztiek Kantauri Mendilerroaren mailaz mailako mazedetan behera Ebroko urbazterrean kokatutako tradizio kultural, gastronomiko eta natural handiko ingurune erakargarria osatzen dute. Mahatsondoa lantzeko mikroklima pribilegiatua du, eta berezitasun horrek mahastizaintza eta ardogintzaren Espainiako egiazko erreferente bihurtu du eskualdea. Ardoaren kultura hain errotuta duen lurraldea, enoturismoaren gorakadak erakartzen dituen era guztietako bisitariak hartzeko leku aparta da. Premisa honetatik **Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbidea** sortu zen. Bere helburu nagusietakoak eskualdearen sustapen turistikoa eta gizarte- eta ekonomia-garapena, eta duela gutxi “Espainiako Ardoaren Ibilbidea”-ren ziurtapena berri du. Bidaiariak, mahasti eta upeltegiko esperientzia bitxiez eta ihesaldiaren paisaia erakargarriaz beraz gozatzeaz gain, ekintza atsegingarri ugari ditu olgetarako, hala nola: jai herrikoiak, neurrira prestatutako txangoak edo landetxe eta hotel eroso eta xarman-xarmangarriak. Halaber, gaua igaro eta lekale, barazki, hestebete, haragi eta gozokiez beteriko despentsak bedeinkatutako sustraiei leialtasunez eusten dion gastronomiaz goza dezake bidaiariak, errezeta herrikoietan platerik onenatariko batzuk gorde baitira.

15 udalerrik (Mainueta, Kripan, Eltziego, Bilar, Bastida, Laguardia, Lantziego, Lapuebla de Labarca, Leza, Moreta, Navaridas, Oion, Samaniego, Eskuernaga eta Ekora) eta 4 Administrazio Batzarrek (Gorrebusto, Labraza, Paganos eta Gatzaga Buradon) osatzen dute **Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbidea**, guztiak ere tradizionalki ardoaren kulturari lotuak eta mahastien artean altxatu diren eta ondare natural, arkeologiko eta artistiko handia gordetzen duten udalerriak. Eremuaren potentzial turistikoa adibideetako batzuk Labrazari emandako herri harresituen nazioarteko saria edo Laguardiara “Milioigarren turista” heldu izana dira.

Udalerririk horien arteko hurbiltasunak eta sarbide onak paisaia izugarrietan galtzeko aitzakia hobe zina dira. Bertan, mahasti amaigabeak, tartekako olibondoak eta milurteko trikuharriak eta ehun urtetik gorako upeltegi dotoreak, uneko arkitektura-proposamenik arriskutsu eta abangoardistenekin bateratzen dira. Eta hori guztia, harmonia perfektuan. Gainera, duela hilabete batzuk autobus turistikoa du Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbidea, zeinak hiri handietan dabiltzanak bezala, prezio bakarraren truke, eskualde osoan zehar askatasun osoz ibiltzeko aukera eskaintzen duen. Autobusetik interesgarrien iruditutako lekuetan jaitsi eta igo ahal da bisitaria, herri batetik bestera joateko norberaren autoaren menpe egon gabe.



Era guztietako upeltegiak Ibilbidearen erdigunea dira. Batzuk lurpeko antzinako upeltegi zaharretan (calado) daude, zeintzuetan ardoa oraindik ere artisau erara egiten duten, eta beste batzuk, munduko arkitektoen onenek markarik ezagunenentzat egindako diseinu ultramodernokoak dira. Ardoak, jai-giroaren gozamen eta alaitasuna batuz, merezi dituen kontrasteen erakargarritasuna da.

Gainera, hainbat eta hainbat enpresek, tartean upeltegiak, ardoaren museoak eta interpretazio-zentroak, enotekek eta ardotekek, ostalaritza-establezimenduek, denda espezializatuek, tabernek, jatetxeek, harrera-enpresek eta astialdiko enpresek osatzen dute **Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbidea**, eta kide berriak hartzeko irekita dago.

Mahastizaintza Ibilbidearen ardatz tematikoa da. Egun, mahastien 13.500 hektarea hartzen ditu eskualdeak, eta Errioxako Jatorri Deitura Kalifikatuaren Kontseilu Arautzailearen menpe egindako ardoak merezi duten prestigioa dute nazioarte-mailan. Buztin- eta kare-lurrari eta mahastien kokapenari sor diete kalitatea, hein handi batean, bertako ardoak eta, bereziki, ardogintzaren legatu historikoa eta teknologia berriak bateratzen jakin duten bertako jendeen zaintzari. Ardo beltzak eskualdeko produkturik bereizgarriena izan arren, azken urteotan ardo zuriaren proposamen interesgarriak egiten ari dira. Estatuko marka nagusiak upeltegiak dituzte eskualdean, eta honek ardoen kalitatearen hobezintasuna adierazten du.

Baina Arabar Errioxa askoz gehiago da, berebiziko kultura-ondarea eta tradizioak gorde baititu eta, nola ez, ardoaren munduaren inguruak. Usta-bilketaren Jai tradizionala eta, otsailaren 14an Lapuebla de Labarcan izango den Uztaberri Eguna edo upeltegi irekien festa, Halaber, ezin dira ahaztu Laguardiako Erregeetako Andre Maria Elizako Jaiotza artikulatu ospetsua, Labrazako Erdi Aroko Festa, Bilargo Sorginaren Trikuharria, Laguardiako Gaitari Eguna, edo azken hamarkadetan bisitariari herriko bat bezala esku hartzeko gonbit egiten dioten zaindariaren omenezko jai ezberdinak.

Modernoagoak baina aurrekoak bezain erakargarriak Laguardiako Erdi Aroko Pintxo Lehiaketa bezalako lehiaketak dira, zeina hainbat edizioen ondoren, zentzu guztietan pribilegiatua den eskualde bateko potentzialtasun gastronomikoa ezagutzeko abagune bakarra baita... Azken batez, betiere itzultzera gonbidatzen duen ihesaldi baterako leku hobezina.

Informazioa: 902 11 40 50.
www.rutadelvinoderiojaalavesa.com

Para más información y material gráfico: Departamento de Comunicación de **RV EDIPRESS**
Ejecutivo de Cuenta: **Javier Picazo** (javier.picazo@rvedipress.com)
Tfno.: **91 730 82 15**. Fax: **91 730 81 93**. Web: **www.rvedipress.com**
Agencia de Comunicación y Publicidad de la **Ruta del Vino de Rioja Alavesa**.